

HITZ BITAN

Ralf Schumacher, gazteen bozeramaile

LEHEN GARAIPENA. Irteera bikainean Coulthardi aurrea hartu zionetik, ez zuen lasterketaburua utzi Williamseko gidariak

Nekane Amiano | DONOSTIA

Jordanekin 1997an 1 Formularen hasi zenetik lehen garaipena lortu zuen igandean Imolan korritu zen San Marinoko Sari Nagusian Ralf Schumacherrek (Alemania, 1975), Michael munduko txapeldunaren anaia gazteak. Eta maisuek bakarrik irabazten duten bezala irabazi zuen, lehen bihurtunean nagusitu eta helmugara iritsi bitartean lasterketa burua beste inoren esku utzi gabe. Anaiak ohi duen bezala.

Igandeko lasterketan irteera on batek duen garrantziaz jabe-arazi gintuen Ralf Schumacherrek. David Coulthardek (McLaren) lortu zuen larunbatean *pole*-a, Hakkinenek (McLaren) bigarren postua eta Ralf Schumacherrek hirugarrena. Coultharden atzean irten behar zuen Schumacher gazteak, eta argi berdea piztu bezain laster, eskoziarraren autoak labain egin zuela baliatua, kanpotik bidea ikusi, azkar abiatu eta, erraz esaten da, irabazi zuen lasterketa Williamseko lehen pilotuak.

Schumacherrek lasterketa burua hartu eta Coulthardek bakarrik segitu zion, gertutik lehen itzulietan eta gero eta den-

bora gehiago galduz hurrengo-etan.

Pozik Williams eta Michelinen

Ralf Schumacherrek 1 Formularen 69 sari nagusitan hartu zuen parte igandea baino lehenago, eta hori izan da irabazi duen lehena. Bi bider izan da bigarren (Belgikan 1998an eta Italian 1999an) eta, igandekoak gabe, denetara 88 puntu irabazi ditu. Jordanekin korritu du 1997an eta 1998an, eta Williamsekin 1999az geroztik.

Baina San Marinoko emaitzarekin Ralf Schumacherrek adina arrazoi daukate pozik egoteko Williams taldeak (1997an Luxenburgon irabazi zuen azkena Villeneuveekin), Michelin pneumatikogileak (1984tik ez zuen irabazi, Portugalen) eta BMWk (azken garaipena 1986an, Mexikon).

SAILKAPENAK

PILOTUAK	PUNTUAK
1.- M. Schumacher (Ferrari)	26
2.- D. Coulthard (McLaren)	14
3.- R. Schumacher (Williams)	12
TALDEAK	PUNTUAK
1.- Ferrari	40
2.- McLaren-Mercedes	30
3.- Jordan-Honda	10

HITZ ETA PITZ

IGOR ASTARLOA

(Mercatoneko ziklista eta Udaberriko Sari Nagusiaren irabazlea)

«Taldeak konfiantza handia izan du nigan eta laguntza hori eskertu beharra nuen»

RUBEN GOROSPE

(Euskaltel-Euskadiko zuzendariordea)

«Paris-Roubaix amaitzea ere oso zaila da. Mentalizazio egokia ezean, hobe ez irtezea»

MATEO GARRALDA

(Portland San Antonioko jokalaria)

«Bartzelonak guk baino esperientzia gehiago du Europako Kopan. Ea ez den finalean hori igartzen»

VICTOR BONILLA

(Tolosako jokalaria eta Realeko jokalaria ohia)

«Nire ametsa Italiako Ligan jokatzeko da. Jokalari handiak joaten dira hara eta ni banaizela uste dut»

RONALDO

(Inter Milan taldeko jokalaria)

«Asko poztu nau taldekideekin osteraren entrenamenduak. Orain garrantzitsuena Interren jokatzeko da»



ELISE AMENDOLA / AP

Lee Bong-Ju korearrak irabazi du Bostongo maratoiaren 105. aldia

Lee Bong-Ju korearrak irabazi zuen atzo Bostongo maratoiaren 105. aldia. Urtero bezala milaka pertsonak hartu zuen parte maratoi zaharretakoan. Bong-Ju Leek bi ordu eta hamar minutuz azpiko marka egin zuen —2.09:43— eta azken kilometroetan atzean utzi zituen Silvio Guerra ekuadortarra (2.10:07) eta Joshua Chelang'a keniarra (2.10:29). 1947an irabazi zuen azkenekoz hegokorear batek Bostongo maratoia. Emakumezkoetan Catherine Endereva keniarak irabazi zuen, marka ona eginez gainera (2.23:53).

STEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		Amurrio-Osasuna		18. Ourense		10. Altea		faseko azken kanporaketa:	
Espainiako Lehen Maila:		12. Zaragoza	36 p.	Gernika-Peña Sport	1-1	6-22	15 p.	1. Anjel Arrospe	34'17"
Numancia-Real	3-3	13. Athletic	36 p.					2. Felix Etxeberria	38'40"
Deportivo-Osasuna	2-1	14. Valladolid	35 p.	SASKIBALOA		Espainiako LEB 2 Liga:		TXIRRINDULARITZA	
Athletic-Espanyol	0-1	15. Las Palmas	35 p.	Espainiako ACB Liga:		El Ejido-Askatuak	76-78	Amorebietako Udaberri Saria:	
Valentzia-Alaves	1-2	16. Oviedo	32 p.	Tau Baskonia-Pamesa	78-75	Bilbao-La Palma	79-89	1. Igor Astarloa (MER) 4.14:20	
Racing-Celta	3-0	17. Real	30 p.	Saikapena:		Saikapena:		2. Eddy Mazzoleni (TAC) d.b.	
Bartzelona-Zaragoza	4-4	18. Racing	30 p.	1. Bartzelona	23-5	Saikapena:		3. Gianni Faresin (LIQ) d.b.	
Malaga-Rayo	1-1	19. Osasuna	29 p.	2. Real Madril	23-5	Saikapena: 2. multzoa		4. Daniel Clavero (MER) d.b.	
Real Madril-Vila-real	4-0	20. Numantzia	28 p.	3. Tau Baskonia	22-6	Saikapena:		5. Bingen Fernandez (EUS) d.b.	
Mallorca-Las Palmas	2-1	Espainiako Bigarren A Maila:		4. Unicaja	22-6	ERRUGBIA		Paris-Roubaix klasikoa:	
Valladolid-Oviedo	1-0	Badajoz-Eibar	1-0	5. Pamesa	18-10	Frantziako Elite Liga:		1. Servais Knaven (DOM) 6.45:00	
Saikapena:		Saikapena:		6. Fuenlabrada	16-12	Narbona-Miarritze	32-20	2. Johan Museeuw (DOM) 34ra	
1. Real Madril	65 p.	1. Sevilla	62 p.	7. Estudiantes	16-12	Saikapena:		3. Romans Vainsteins (DOM) 41era	
2. Deportivo	57 p.	14. Eibar	42 p.	8. Forum Valladolid	14-14	1. Montferrand	38 p.	4. George Hincapie (USP) d.b.	
3. Valentzia	52 p.	Espainiako Bigarren B Maila:		9. Casademont Girona	12-15	2. Tolosa	37 p.	5. Wilfred Peeters (DOM) d.b.	
4. Mallorca	52 p.	Barakaldo-Eibar	1-1	10. C. San Fernando	12-16	3. Colomiers	35 p.	Munduko Kopako saikapena:	
5. Bartzelona	51 p.	Athletic-Kalagurri	0-0	11. Caceres	12-16	4. Miarritze	32 p.	1. Romans Vainsteins (DOM) 116p.	
6. Alaves	46 p.	Racing-Aurrera	2-1	12. Canarias	11-17	5. Akize	31 p.	2. Gianluca Bortolami (TAC) 111p.	
7. Celta	44 p.	Tropezon-Alaves	1-1	13. Joventut Badalona	10-17	6. Arroxela	30 p.	3. Servais Knaven (DOM) 101p.	
8. Vila-real	43 p.	Binefar-Real Union	1-0	14. Breogan	10-18	7. Narbona	30 p.	4. Erik Zabel (TEL) 100p.	
9. Malaga	42 p.	Burgos-Txantrea	2-0	15. Cantabria	9-19	8. Grenoble	30 p.	5. Johan Museeuw (DOM) 80p.	
10. Espanyol	42 p.	Beasain-Gimnastica	3-1	16. Gijon	8-20	9. Brive	30 p.		
11. Rayo	38 p.			17. P. Costablanca	7-21	10. Aurillac	24 p.		
						11. Auch	22 p.		
						AIZKORA			
						Urrezko Aizkorako lehen			
						1. Ademar	36 p.		
						2. Bartzelona	33 p.		
						3. Portland	28 p.		
						4. Ciudad Real	25 p.		
						5. Valladolid	24 p.		
						6. Galdar	22 p.		
						7. Granollers	21 p.		
						8. Bidasoa	19 p.		
						9. Pilotes Posada	16 p.		